



OSTALARITZAKO UDAL ORDENANTZA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA.- XEDEA

Ordenantza honen xedea da ostalaritza sektorearen garapena eta hobekuntza bultzatzea sektoreko eta berdinetatikko establezimenduek bete beharreko baldintzak ezarrita. Baldintza horiek kokapenari, higiena eta sanitateari, babesari eta beste zenbaiti buruzkoak dira, guztiak ere kontsumitzaileen eta erabiltzaileen osasuna eta segurtasuna bermatzeko, nahi den ingurumen oreka lortu arte orraztuta jarduerak.

Suteei aurrea hartzeko baldintza orokorrak zehaztu dira, lokalek eta horien aurrealdeek izan behar dituzten eraikuntzako eta arkitekturako baldintzak, establezimenduen ingurumen baldintzak, osasun baldintzak eta zaratarik eta dardararik ez izateko hartu beharreko neurriak eta udal inspeksio-sistema arautu da.

2. ART.- DEFINIZIOAK

2.1 Ostalaritzako establezimendua izango da lokalean edo ondoko eremuren batean kontsumitzeko elikagaiak edota edariak ematen dituen oro. Berdin dio toki berean beste mota bateko jarduerak egin edo ez, edo establezimendu hori beste jarduera nagusi bat duen establezimendu bateko zati izan.

2.2 Ostalaritzako etengabeko establezimendutzat joko da funtzionamendu jarraitua duen instalazio finkoa edo establezimendua, urteko sasoi edo egun batzuetara mugatzen ez dena eta honako tokietan dagoena: kalean, plazan, bide publikoetan oro har, parkean, azokan, ibaietan, kirol instalazioetan eta aisiakoetan.

2.3 Ostalaritzako aldi bateko establezimendutzat joko da sasoi baterako jartzen dena, dela finkoa edo dela desmontagarria, jarduera aldi laburretara mugatzen duena. Gehienetan aldi hori ospakizunekin, azokekin, herriko jaiekin edo berariazko gertakizunekin bat etortzen da.

3. ART.- EZARTZEKO EREMUA

3.1 Ordenantza honen mende daude:

Amorebieta-Etxanoko udalerriko jarduera, lokal eta instalazio publiko edo pribatu iraunkorrak, elikagaiak edota edariak ematen eta kontsumitzen direnak edo jatetxeak direnak; baita antzeko jarduerak dituzten establezimenduak ere, elikagaiak edota edariak ematea establezimenduko jarduera nagusiaren osagarritzat dutenak barne.

Ordenantza hauetako sailkapenaren arabera bi taldetan egon daitezkeen establezimenduen kasuan, erabilerak argi eta garbi bereiztuta egon beharko dira lokalean eta erabileren bakoitza dagokion araudiaren mende egongo da. Fisikoki bereiztuta ez dauden erabileren kasuan, establezimendua osorik hartu eta gehien mugatzen duen araudia ezarriko da.

3.2 Sartzen ez diren jarduerak

Araudi honetatik kanpo gelditzen dira berariaz, egun jakin batzuetan ikuskizunak eta jaiak antolatzekeo jarritako behin-behineko instalazioak. Hori guztia instalazio horiek dagokien udal baimena lortzeko betebeharrari eta araudi orokorra betetzeari kalterik egin gabe. Segurtasun, higieue eta kontsumitzailearen babes arloan bete beharko dute, batez ere, araudi hori.

Aldi baterako establezimenduak 4. Eranskineko (Aldi baterako ostalaritza establezimenduak) zehaztapenen arabera arautuko dira.

4. ART.- ORDENANTZA HAUEK EZARTZEKO IRIZPIDEAK

4.1 Ordenantzak ezartzeko irizpideak udal lizentziarekin lanean ari diren establezimenduetan.

Ordenantza hau indarrean sartzean dauden eta udal lizentzia duten establezimenduak ordenantza honetara egokitu beharko dira pixkanaka, beraz, ez da hobekuntza lanik baimenduko lokala (osorik edo aldaketak eragindako eremuak soilik) ordenantzara erabat edo zati batean egokitzeko ez bada.

4.2 Lehendik dauden eta jarduteko udal lizentzia duten jarduerak hazteko ezar daitezkeen irizpideak.

Lehendik dauden jarduerak hazteko baldin bada, egin beharreko kudeaketak eta ordenantza hau ezartzeko modua, jarduera berrientzat bezalakoa izango da.

4.3 Lehendik dauden eta jarduteko udal lizentzia duten jarduera-taldeak aldatzeko ezar daitezkeen irizpideak.

Lehendik dauden jarduera-taldeak aldatu behar izanez gero, egin beharreko kudeaketak eta ordenantza hau ezartzeko modua, jarduera berrientzat bezalakoa izango da.

4.4 Establezimendu berriak irekitzeko ezarri beharreko irizpideak.

Ordenantza hauek oso-osorik ezarriko dira. Establezimendu berritatz joko dira ordenantza hau indarrean sartu denean Udalak emandako udal lizentziarik ez dutenak.

5. ART.- SAILKAPENA, ORDUTEGIA ETA ZARATOTSEN MUGAK

Jarduerak taldeka sailkatzeko eta ordutegiak eta zaratotsak mugatzeko, 5. eranskinen adierazitakoaren arabera egingo da.

II. KAPITULUA

HIRIGINTZAKO BALDINTZAK

6. ART.- LURZORUAREN ZONIFIKAZIOA

Ordenantza honen eraginetarako udal lurzorua honako zonifikazioaren arabera sailkatuko da:

6.1 Gune hiritarra

Hiri lurzoruak eta lurzoru hiritargarriak sartzen dira.

6.2 Gune ez hiritarra

Araubide erkideko lurzoru hiritarrezina (nekazaritzakoa eta abeltzaintzakoa) eta landa nukleoak hartzen ditu. Gune horietan ostalaritzako jarduera duen establezimendu bat ezartzeko, 2. taldean dauden jardueretara mugatu beharko da, zehatz esanda: tabernak, upategiak, jatetxeak, erretegiak, jantokiak, txokoak, gastronomi elkarteak, sagardotegiak eta antzekoak.

7. ART.- GUNE HIRITARRETAN EZARTZEKO IRIZPIDEAK

7.1 Gutxieneko distantziarik ez dute bete beharko 1. taldeko establezimenduek. Txokoek, gastronomi elkarteek eta barra zerbitzurik ez duten jatetxeek, 2. taldean sartuek, ez dute horrelakorik bete beharrik.

7.2 Establezimendu batek 2. eta 3. taldeko beste establezimendu batetik izango duen gutxieneko tartea 25 metrokoa izango da aurrealdeko edozein puntutatik kontatuta. Era berean, oinplanoko proiektzioan 5 metroko distantzia izango dute inguruko ostalaritzako beste edozein lokaletara, bere perimetroko edozein puntutatik.

7.3 Merkataritza zentroetan, hezkuntzakoetan, osasun zentroetan, administrazioakoetan, industrialetan, ostalaritzakoetan, kirolekoetan, zineetan, antzokietan eta antzekoetan dauden establezimenduek, kokatuta dauden jarduera horretako berariazko ordutegian bakarrik aritzen direnek, gutxieneko distantziarik bete beharrik ez dute.

7.4 Ezkaratz unitate bati dagozkion etxebizitzan oinplanoko proiektzioan ezingo dira bi establezimendu edo bi establezimenduren zatiak baino gehiago egon.

7.5 Etxebizitzak dauzkaten eraikinetan ezingo dira lokalak erabili 4. taldeko ostalaritza eta ikuskizun publikoko jarduerak egiteko.

8. ART. – GUNE EZ HIRITARRETAN EZARTZEKO IRIZPIDEAK

8.1 Gune horietan 2. taldeko establezimenduak bakarrik ezar daitezke eta honako muga hauekin:

Araubide erkideko lurzoru hiritarrezinetan (nekazaritza eta abeltzaintzakoetan) gutxienez 100 metroko tartea egon beharko da establezimendu batetik bestera eta inguruko beste edozein eraikinetara.

Landa nukleoetan gutxienez 25 metrokoa establezimendu batetik bestera eta inguruko beste edozein eraikinetara. Txokoek eta gastronomi elkarteek ez dute gutxieneko distantziarik bete beharko.

8.2 Bi tipologietan honako baldintzak bete beharko dira:

Jarduera aparteko eraikin batean egingo da, ez elkarbanatutakoan, eta Arau Subsidiarioak indarrean jartzean bazegoen eraikin batean, jarduerari loturiko etxebizitza bat egon daiteke.

Kanpoan terrazak izanez gero, terrazan udal ordenantzaren arabera egongo dira.

Aparkalekua izan beharko da, ingurura egokitua partzelan barruan eta aparkalekuaren plaza kopurua kalkulatzeko, jarduerak duen gaitasuna zati lau egin beharko da.

8.3 Aurretik zeuden jardueren kasuan, zabaldu egin ahal izango dira jarduera osagarriekin, Arau Subsidiarioen 3.3.7. artikuluan zehaztutako azalera eta aparkaleku baldintzekin eta jarduera

berrientzako jarritako distantziak bete beharrik gabe jarduera berria ostalaritzako jarduera nagusiaren mendekoa baldin bada.

9. ART.- ESTABLEZIMENDUEN ARTEKO DISTANTZIA NEURTZEKO IRIZPIDEAK

9.1 Ezkaratz unitate bati dagozkion etxebizitzaren oinplanoko proiektzioan ezingo dira bi establezimendu edo bi establezimenduren zatiak baino gehiago egon.

9.2 Lokalen arteko distantzia neurtzeko bide publikotik gertuen dauden aurrealdeetako muturrak hartuko dira fatxadaren kanpoko alineazio(ar)en paraleloa izango den lerro batekin eta batera igorritako dokumentazio grafikoaren arabera.

9.3 Establezimenduen artean bide publikotik egon daitekeen distantziaz gainera, irizpide erradiala ezarriko da establezimenduen oinplano proiektzioa edozein bertizetatik, eraikinaren barruan lokalak elkarren ondoan egotea saihesteko.

9.4 Distantziak neurtzeko udalerriko kartografia erabiliko da edo 1:100 eskalako krokisa, definitzeko behar adinakoa, eta in situ egiaztatuta ahal izango dituzte udaleko zerbitzu teknikoek 1. eranskinean adierazitako irizpide grafikoaren arabera.

III. KAPITULUA

JARDUERA BERRIENTZAKO BALDINTZA ARKITEKTONIKOAK

10. ART.- ERABILERA ETA NEURRIAK

10.1 Behe solairuan egon eta publikoarentzako diren 1. eta 2. taldeetako establezimenduen gutxieneko azalera erabilgarria 25 m²-koa izango da.

10.2 Behe solairuan egon eta publikoarentzako diren 3. taldeko establezimenduen gutxieneko azalera erabilgarria 50 m²-koa izango da.

10.3 Gutxieneko azalera erabilgarrian ez dira sartzen zerbitzuentzako (sukaldea, ofizioak, komunak, biltegia, aldagelak, etab.) eremuak eta barraren area.

10.4 Establezimendu guztiek izan beharko dute soilik biltegi bezala erabiltzeko toki bat, gutxieneko azalera erabilgarria lokalaren azalera erabilgarri osoaren %5 izango duena.

10.5 Sotoan solairu bat egonez gero, sarbidea beheko solairutik egingo da eta solairu horien arteko kontaktuzko azalera sotoko azaleraren %25ekoa izan beharko da. Dena dela, nola beheko solairua hala sotokoa edo goikoak, eraikitze-unitate berekoak izan beharko dira.

Sotoko solairua biltegi izateko, aldagela izateko, instalazioetarako edo zerbitzuetarako erabiliko da (7.4.1. art. Sotoen baldintzak).

10.6 Solairuarteak Arau Subsidiarioetan zehaztutakora mugatuko dira (7.4.5. art. solairuarteak behe solairuetan eta 7.4.6. Solairuarteak lokal industrialetan edo tertziarioetan).

11. ART.- OKUPAZIOA

Honakoetan xedatutakora mugatuko da: CTE DB-SI (Eraikinaren kode teknikoa, Oinarrizko dokumentua, Suteetako segurtasuna) edo horren ordeko arauetara edo arau osagarrietara.

Barruko eremua dagokion legediak ezarritakora mugatuko da ebakuazioa, irisgaritasuna eta beste gai batzuei dagokienean.

Lokal bakoitzak ikus daitekeen toki batean izango du kartel bat egon daitekeen gehieneko jende kopurua eta irekitzeko eta ixteko ordutegiarekin. Baldintza hori eskatuko zaie dauden establezimendu guztiei ere.

12. ART.- AURREALDEAK

Lokalek gutxienez 4 metroko aurrealdea izan beharko dute berriak baldin badira, eta 100 m²-tik gorako lokaletan metro bat haziko da aurrealde hori 25 m²-ko.

Ez da aurrealdean leiho izan daitekeen baorik irekitzen utziko, establezimenduaren kanpoaldera zerbitzu zuzena eskaini ahal izateko.

13. ART.- KANPOKO ITXURA

Establezimenduen kanpoko itxura eraikinaren itxurarekin bat etorriko da. Ezingo dute aldatu dagoen eraikineko berezko hutsunerik, ezta jatorrizko konposizioa aldatu ere, dagokion proiektu teknikoan behar bezala justifikatzen ez badira.

14. ART.- LOKALEN ALTUERA ETA JARDUERENA

Amaitutakoan, establezimenduek ezingo dute Arau Subsidiarioetan xedatutakoa baina altuera txikiagoa izan.

15. ART.- MATERIALAK

Materialak iraunkorrak izango dira eta erraz garbitzen direnak, hautsari, zikinkerari eta hezetasunari eusten dioten materialak saihestu egingo dira suteen aurkako eta sanitateko babesa ezartzeko legedian ezarritako zehazpenen arabera.

Eremu guztietako lurzorua labaintzen ez dena izango da.

IV. KAPITULUA

HORNIKUNTZA ETA BALDINTZA HIGIENIKO SANITARIOAK

Baldintza higieniko sanitario hauek orokorrak eta betebeharrekoak dira ordenantzak eragiten dien establezimendu guztientzat. Jabeak proposatuta eta irtenbide alternatibo egokiagoa babesteko justifikazio tekniko bat egonez gero, establezimenduetan salbuespen puntualak egon daitezke sukaldeko, biltegiko eta kapitulu honetan aurreikusitako beste hornikuntza batzuen azaleran.

Lokalen eta elikagaien baldintza higieniko sanitarioak ordenantza hauetan adierazitako jarraibideek arautzeaz gain, berariazko araudiek ere arautuko dituzte.

16. ART.- HUSTUBIDEAK

Jatetxeen kasuan sukaldean eta hondakinen gelan isurbide-hustubideak egongo dira zoruan ixteko hidraulikoekin eta dagokien saretazko taparekin eta sifoi hidraulikoarekin.

17. ART.- KOMUN PUBLIKOAK

Establezimendu guztiek publikoarentzako bi komun izan beharko dituzte, sexu bakoitzarentzat bana, indarrean dagoen irisgarritasun legera behar bezala egokituta.

18. ART.- LANGILEEN ALDAGELAK ETA KOMUNAK

18.1 Atal honetan duden neurriak apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretuaren edo horren ordezeko arauaren arabera ezarri beharko dira. Errege Dekretu hori lantokietako segurtasun eta osasun arloko gutxieneko xedapenei buruzkoa da.

18.2 Ez da aldagelarik behar edariak eta elikagaiak emateko establezimenduetan 50 m² baino gutxiago baldin badituzte. Horren ordezkari langile bakoitzarentzat bi takila (kaleko arroparentzat eta lanekoarentzat) egon daitezke, oinetakoentzako tokiarekin, horretarako egokitutako eremuan.

18.3 Elikagaiak eta edariak kontsumitzeko 100 m² arteko lokaletan, gutxienez 4 m²ko tokia izango da aldagelatarako, dagozkien takilekin (langile bakoitzarentzako bi eta oinetakoentzako tokia, edo takila bat gune desberdinekin, bata kaleko arroparentzat eta bestea lanekoarentzat).

18.4 Elikagaiak eta edariak kontsumitzeko 100 m² baino gehiagoko lokaletan, gutxienez 6 m²ko tokia izango da aldagelatarako 100 m²ko, eta beharrezkoa izango da komunarentzat berariazko gela bat egotea. Aldageletan eskuak garbitzeko pedaldunak ezarriko dira ur hotzarekin eta beroarekin, xaboi likidoaren dosifikagailua eta erabilera bakarreko esku lehorgailua.

18.5 Ahal den neurrian eta aurreikusitako erabileren arabera, bi sexuentzako aldagelak ezarriko dira. Jatetxeetan dutxak egon beharko dira aldageletan.

18.6 Aldageletarako sarrera ezingo da sukaldetik egon.

19. ART.- SUKALDEAK

19.1 Sukaldea izateko eremu bat egon beharko du edozein motako elikagaiak egiten edota kontsumitzen diren establezimenduetan.

19.2 Salbuetsita daude enbasatutako eta aperitibo gisa prestatutako elikagaiak (patatak, olibak, izozkiak, etab.).

19.3 Sukaldeak gutxienez 5 m²ko azalera erabilgarria izango du honako muga hauekin: publikoarentzako azaleraren %10a gehi jantokiaren azaleraren %20a baino txikiagoa ezingo da.

19.4 Bestelako eskakizunak (gutxieneko hornikuntzak, argiarentzako baoak, aireztatzekoak eta antzekoak) une bakoitzean indarrean dagoen araudi sanitarioak adieraziko ditu.

20. ART.- BARRA

Zoladura irristagaitza izango da, ez da latza izango eta iragazgaitza izango da.

Galarazita daude elikagaiak eraldatzeko diren frijigailuak, plantxak eta labeak, horiek sukaldean egon beharko dira. Barra dagoen tokian mikrouhingailua egon daiteke.

Altzarien gutxieneko hornikuntza une bakoitzean indarrean dagoen araudi sanitarioak markatuko du.

21. ART.- BILTEGIA

21.1 Establezimendu guztiek izango dute biltegi izateko gela bat, lokalaren osoko azalera erabilgarriaren %5eko azalera erabilgarria izango duena gutxienez.

21.2 Biltegiko tenperatura batez beste berdina izango da beti.

21.3 Biltegirako sarguneak egokiak izan beharko dira, ez da ezkututzen den eskailerarik edo karakolean dagoenik onartuko biltegirik nagusienetan.

21.4 Garbitzeko eta desinfektatzeko produktuentzat berariazko armairu bat egongo da behar bezala adierazita, eta ezingo dira elikagaiekin batera jaso. Ezingo da elikagairik manipulatu biltegian. Baldintza hori dauden establezimendu guztiek bete beharko dute.

22. ART.- GORDETZEKO ELEMENTUAK

Hozkailu edota izozkailu egokiak beharko dira hotzean gorde behar diren produktuentzat eta fisikoki bananduko dira egindako produktuak eta lehengaiak. Elikagaiak gordetzeko tresnak sukaldean, biltegian edo barran egon daitezke, ezaugarrien eta berariazko erabilpenaren arabera.

23. ART.- HONDAKINEN GELA

Ostatu erabilera duten ostalaritzako establezimenduek, publikoarentzako azalera baldin badute, jantokia barne eta azalera hori 200 m² baino handiagokoa baldin bada, berariazko gela bat izango dute hondakinentzako. Gela horrek gutxienez 3 m² izan behar ditu eta 1 m² gehituko zaizkio azalerako 100 m²-ko. Horma eta lurra zeramikazkoak izango dira eta hertzak eta amaierak egurrezkoak izango dituzte zikina pilatu ez dadin eta erraz garbi daitezen.

Komunak ez dira elikagaiak manipulatzeko eremuekin lotuta egongo eta ura, hustubideak zoruan eta aireztapen artifiziala izango dituzte.

24. ART.- JENDEARENTZAKO EREMUA. SARRERA.

Lokalera sartzeko ohiko ateak irekitzean ez dute bide publikoa oztopatuko. Atea gutxienez 90 cm izango da zabalean, beti ere sektoreko berariazko beste araudi batzuek neurri handiagoko sarrerak edo irteerak ezartzen ez badituzte.

Eskaileren kasuan, CTE DB-SI delakoaren arabera diseinatuko dira (Eraikinaren kode teknikoa, Oinarrizko dokumentua, Suteetako segurtasuna) edo horren ordeztako arauen edo arau osagarrien arabera.

V.KAPITULUA

INSTALAZIOEN BALDINTZAK

Aireztatzeari eta zaratei eta dardarei buruzko neurri zehatzak maiatzaren 12ko 14/1983 aginduan adierazitakora mugatuko dira. Agindu hori 1983ko uztailaren 27ko EHAA 111. zenbakian argitaratu zen eta ekintzapide nekagarriak, osasunkaitzak, kaltekorrak eta arriskutsuak betebideratzeko zen. Ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuan adierazitakora ere mugatuko dira. Dekretu

horrek onartu zituen ekintzapide nekagarrietan, osasunkaitzetan, kaltekorretan eta arriskutsuetan ezartzeko arau teknikoak eta 1985ek ekainaren 29ko EHAA 134. zenbakian argitaratu zen. Bestela, berriz, horien ordezeko arauak adierazitakora mugatuko dira.

25. ART.- ARGIAK.

25.1 Argiaren intentsitatea honakoa izango da:

Manipulazio eremuetan eta sukaldean 500 lux.
Biltegian eta hozkailuak dauden tokian 150 lux.
Jendearentzako tokietan 300 lux.

25.2 Argitze-sistema, batez ere elikagaiak manipulatzeko eremuan eta sukaldean, behar bezala babestuta egongo da apurtuz gero elikagaiak kutsa ez ditzan eta erraz garbi daitezzen.

25.3 Larrialdietarako argitze sistema bat egongo da, behar adinako argirik gabe geldituz gero lokala ikus baldintza egokietan husteko.

26. ART.- AIREZTATZEA.

1985eko ekainaren 6ko 171/85 Dekretuan xedatutakora doituko da, ekintzapide nekagarri, osasunkaitz, kaltekor eta arriskutsuei buruzkora.

27. ART.- BALDINTZA AKUSTIKOAK.

Dardarak, gehienezko zaratotsa eta isolamendu akustikoa.

27.1 Ezingo da dardararik eragin inguruko eraikinen, lokalen edo etxebizitzaren egituretan, lizentziaren titularrak hori prebenitzeko behar diren bitartekoak izango ditu.

27.2 Jarduera lizentziarako eskaerarekin batera lokala insonorizatzeko berariazko proiektua aurkeztuko da nahitaez, arautzen duen legedian ezarritako justifikazioekin eta hartu beharreko neurriekin.

27.3 Musika ekipoak erabiltzeko baimenak isolamenduko gutxieneko mailak betetzen direla kreditatu beharko du eta tresnaren potentzia eraginkorraren mugak ere bai, taldekako sailkapenean ezarritako muga arabera, mugatzekoak eta potentzia euskarriak ezarrita.

27.4 Jarduerak izango duen isolamendu akustikoa dena delakoa izanda ere, ezarritako inspirazio mugak ez dira gaindituko.

27.5 Establezimenduak baoren bat baldin badu patioaren batera, eremu horretara ematen duten leihoak eta ateak akustikoki behar bezala isolatu direla bermatu beharko da.

27.6 Ordenantza hau indarrean sartu aurretik lizentzia izan eta indarrean dagoen goiko mailako araudiak gutxienez ezarritako isolamendu akustikoko estandarretara berehala egokitzeko asmorik ez duten establezimenduek, tresna igorleen potentzia eraginkorra eta igortzearen gehiengo maila dagokien bezala ainguratu beharko dituzte aurrez ezarritako parametroak gaindi ez ditzaten. Parametro horiek kontrolerako erakunde kreditatu batek ezarriak izango dira lokala konfiguratzeko duten parametroen isolatzeko gaitasunaren arabera eta ondorioz alboko lokaletara soinua igortzeko mugekin. Azterketa hori lizentziaren titularrak ordainduko du, Udalean aurkeztuko du eta lokalean ezarriko da ordenantza hau onartu eta gehienez bederatziz hilabeteko epean.

Ainguratze horrek lotura izango du denbora errealean udaltzaingoarekin tresna igorleek igorritako potentziaren erregistroa etengabe izateko. Datuak komunikatzeko eta erregistratzeko sistema hori aurrez onartu beharko dute udaleko zerbitzu teknikoek.

4. taldeko lokalak nahitaez egokitu beharko dira Ordenantza honetan ezarritako baldintzetara.

27.7 Udalak egoki iritzitako neurketak egin ditzake establezimendu bakoitzaren igorketa maila zehazteko.

27.8 Isolamendu akustikoaren gaian hartutako neurriak ekainaren 11ko 171/1985 Dekretura egokituko dira, ekintzapide nekagarri, osasunkaitz, kaltekor eta arriskutsuei buruzkora, edo horren ordezkoko araudira.

28. ART.- SUTEEN AURKAKOAK

28.1 Baldintza hau dauden establezimendu guztiei eskatuko zaie.

28.2 Une bakoitzean indarrean dagoen araudian ezarritakora egokituko da:

Suteen aurkako babesa ezartzeko araudia.

Eraikinaren kode teknikoa, Oinarrizko dokumentua, Suteetako segurtasuna.

Eraikinaren kode teknikoa, Oinarrizko dokumentua, Erabiltzeko segurtasuna.

Ikuskizun publikoen eta aisia jardueren poliziaren araudi orokorra.

28.3 Indarrean dagoen legediak ezarritako baldintza guztiak beteko dira honakoei dagokienean: konpartimentatzea, seinaleztatzea, hustea, babesteko instalazioak eta materialen ezaugarriak suarekiko.

28.4 Establezimendua egurrezko egitura duen eraikin batean egonez gero, sutea automatikoki hautemateko sistema izango du, bere neurriak dena delakoak izanda ere.

28.5 Erregaitzat gasa erabiltzen duten instalazioek, hautemateko argidun sistema bat ezarriko dute lokalaren kanpotik eta barrutik ikusten dena.

29. ART.- HONDAKINAK

Baldintza hau dauden establezimendu guztiei eskatuko zaie.

Hondakinentzako gela bat behar edo ez, establezimendu guztiek izango dituzte zaborrentzako ontziak, erraz garbitzen eta desinfektatzen direnak, hermetikoki ixten direnak eta egun batean sortzen diren hondakin guztiak biltzeko adinako kopuru eta bolumenekoak. Ontzi horiek sukaldetik kanpo egongo dira eta zabor poltsak beteta eta itxita uzteko balioko dute.

30. ART.- GIROTZEA

30.1 Girotzeko instalazioak ez dira derrigorrezkoak eta honako zehaztapen hauek izan behar dituzte:

Bulkatzeko eta ateratzeko saretak bide publikoko sestraren gainetik 2 metrora jarriko dira gutxienez, eta beti ere sarbideko atearen eta aurrealdeko baoen gainetik.

Zaratak eta dardarak ekiditeko behar diren bitartekoak izango dira.

Instalazioak sartuta geldituko dira aurrealdeko planoarekin eta behar bezala disimulatuta.

30.2 Jarduera proiektuan egongo da girotze instalazioa, horren zehazpen teknikoak, fisikoak, kokapena, bideen trazatua eta dardaren eta zarataren aurka aurreikusitako sistemak, kokapenari dagokionez berariazko udal legedira egokituta.

31. ART.- ERROTULUEN ETA ERAKUSLEIHOEN BALDINTZAK

Amorebieta-Etxanoko Arau Subsidiarioetan xedatutakora mugatuko da, 7.8.7. artikulua "Iragarkiak eta markesinak" eta ez da publizitate komertzialik onartuko.

Baldintza hau dauden establezimendu guztiei eskatuko zaie.

32. ART.- DEBEKUAK

32.1 Establezimendu horietan animaliak sartzea eta egotea, itsuentzako txakurrak izan ezik, horiek jendearentzako eremuetara bakarrik sartu ahal izango dira.

32.2 Zerrautsa, kartoiak edo beste edozein sustantzia erabiltzea lurzorua, azalerak edo tresnak estaltzeko.

32.3 Dauden paramentuetan jartzen diren plastikozko edo beste material bateko kaina erdiak, zikinari eusteko ertz gehiago sortzen baitute.

32.4 Bide publikoa baimendu gabeko gauzetarako erabiltzea: makina saltzaileak jartzeko, materiala pilatzeko, saltzeko eta kontsumitzeko.

32.5 Egurrezko gainazala izatea elikagaiak manipulatzeko edo edukitzeko mahaiek, bandejek edo beste edozein ontzik.

32.6 Debeku horiek establezimendu guztiek bete beharko dituzte.

33. ART.- TERRAZAK EZARTZEA

Terrazak ezartzea arautzen duten udal ordenantzan xedatutakora mugatuko dira.

34. ART.- LARRIALDI PLANAK

Establezimendu guztiek, baita badaudenek ere, dagokien larrialdi plana egin beharko dute jendaurreko ikuskizun eta jolas jardueretarako legean ezarritako betebeharren arabera.

35. ART.- ARAUBIDE JURIDIKO-ADMINISTRATIBOA. LIZENTZIAK.

35.1 Lizentziak eskatu. Jarduera berria edo jada badagoena zabaldu.

- Lizentzia eskatzeko aurkeztu beharreko agiriak 3. eranskineko fitxan adierazitako betebeharrak egokituko dira. Nahitaezkoa izango da lizentzia tramitatzeko eskatutako agiri guztiak aurkeztea eranskinean ezarritako ordenan, errazago gainbegiratzeko eta kontrolatzeko udaleko zerbitzuek.

- Eskariarekin batera jardueraren proiektuko lau kopia aurkeztuko dira eskumendun teknikariak eginda eta dagokion profesionalen elkargoak bisatuta.

Jarduera lizentziarekin batera, obren lizentzia eskatuko da dagokion proiektu teknikoarekin. Hau ere eskumendun teknikariak eginda eta dagokion profesionalen elkargoak bisatuta.

- Ez da obren lizentziarik emango dagokion jarduera lizentzia eman arte.

- Bi lizentzia eskari aurkeztuz gero eta bateraezinak izanez gero distantziak arautzen dituen araudia ezarrita, lehentasuna emango zaio Udaleko zerbitzuetan lehenbiziko aurkeztutakoari 3. eranskinaren arabera eskatutako agiri guztiak aurkeztu baditu. Agiri guztiak aurkeztu ez baditu, Udalak erabakiko du nori eman lehentasuna.

- Proiektuan dauden edo eraikitzen ari diren eraikinetarako jarduera lizentziak edo obra lizentziak eskatuz gero, tramitatuko dira, baina ez da irekiera lizentziarik emango lehen erabilerako lizentzia lortu arte.

- Dauden instalazioak zabaltzeko baldin bada eskaria edo lizentzia duten lokaletan jarduera berri bat ezartzeko, eskari berriaren berezko agiriez gain indarrean dagoen lizentziaren kopia aurkeztu beharko da.

- Lizentziadun lokal bat hazteko eskaria baldin bada eta ostalaritzako establezimenduen gainean ordenantza honetan ezarritako gutxieneko distantzia betetzen ez bada, baimena mugatu egingo da irisgarritasunera, segurtasunera, huster, suteak prebenitzera eta antzekoetara bideratutako lanetara.

- Gutxieneko distantzia baduelako haztea baldin badago, dagoen lokaleko azalera erabilgarriaren %50 hazi ahal izango da gehienez.

- Establezimendu bat hazi behar izanez gero, lizentzia berria eskatu beharko da eta lokal guztia ordenantza honen baldintzetara egokitu beharko da, establezimendu berria balitz bezala.

- Udal zerbitzuek eskatzaileari agiri batzuk ez aurkezteko aukera eman diezaiokete, hazteko edo aldatzeko lanen izaera dela eta horrelakorik ez dela behar ikusiz gero.

35.2 Taldez aldatzeagatik lizentzia eskaera.

Taldez aldatzeko lizentzia berria eskatu beharko da beti eta lokala ordenantza honetako eskakizun guztietara egokitu beharko da.

35.3 Lizentziak eman eta jarduera ireki.

- Jarduera abian jarri aurretik, udal zerbitzuek ikuskatzeko bisita egingo dute jarduera proiektuan ezarritako neurri zuzentzaileak bete direla egiaztatzeko, gero txostena igorriko da irekiera lizentziarekin edo konpondu beharreko hautemandako akatsen zerrendarekin batera.

- Irekiera lizentzia emateko agiria ikus daitekeen toki batean jarri beharko da establezimenduan.

35.4 Lizentziak transmititu. Titularra aldatu.

- Lizentziak transmititu egin ahal izango dira jardueraren titularra aldatzean. Lizentzia transmititu aurretik nahitaez eskatu beharko da titularra aldatzeko udal administrazioan.

- Jardueraren titularra aldatzeko baimena emango da establezimendua ordenantzaren eskakizunetara eta indarrean dauden beste araudi(eta)ra berehala egokitzeotan.

- Udal zerbitzuek lokalak ikuskatu ahal izango dituzte eta instalazioen egokitze mailari buruzko txostena egin. Txosten horretan egokitze egin beharreko lanei buruzko oharrak ere jarriko dituzte.

35.5 Lizentziak ezereztatu eta iraungi

- Lizentzia honakoetan ezereztatuko da: lizentzia emandakoan zeuden gorabeherak, irtenbide teknikoak, instalazioak, lokalak edo beste alderdi garrantzitsu batzuk bete ez badira edo aldatu baldin badira eta horrek erabiltzaileen segurtasunari edo osasungarritasun publikoari kalte egiten badio. Lizentziaren titularrak 6 hilabete izango ditu konpontzeko, eta epe hori igaro eta arazoa konpondu gabe baldin badago, lizentzia iraungi egingo da.

- Lizentzia duen jarduera bat banatu edo bereizi eta funtzionamendu autonomoko dependentziak jarriz gero behar den eskariak egin gabe eta lizentzia berriak eman gabe, horrelakorik egiteko aukera dagoenetan, lizentzia(k) automatikoki ezereztatuko d(ir)a.

- Jarduera lizentziak iraungita joko dira emateko akordiotik hiru hilabete igaro eta lokala edo establezimendua ireki ez bada (beti ere Obren lizentzia baten mende ez dagoenean) edo titularrak hasi eta jarduera eten edo baja emango balu Jarduera Ekonomikoen Zergan sei hilabetez edo gehiagoz. (Udaleko ordenantza fiskalak).

- Obra lizentzia eman eta 6 hilabete igaro ondoren obrak hasi ez badira edo 6 hilabete baino gehiagoz geldirik baldin badaude, jarduera eta obra lizentziak iraungi egingo dira eta nahitaezkoa izango da prozedura berriro hastea edo luzapena eskatzea, atzerapena eragin duten zergatiak azalduta, eta Udaleko zerbitzuek justifikatuzat joz gero berriro emango da.

- Obra lizentzia eman eta urtebeteko epean ez badira obrak amaitu edo amaitu arren jarduera ez bada hasi, lizentziak iraungi egingo dira, biak lehenbiziko kasuan eta jardueraren lizentzia bakarrik bigarren kasuan.

- Udal zerbitzuek emandako egokitze epea igaro eta establezimendu jakin batek instalazioak egokitu ez baditu, lizentzia ezereztatu egingo da eta une horretatik aurrera ez da kontuan hartuko bere egoera jarduera berriak ezartzeko distantziak kontuan hartzean.

- Publikoari zuzenduriko establezimenduetan, jarduera jarraitua eskatuko da eta bere taldeari dagokion ordutegia beteko du irekitzeko eta ixteko, jarduera mantentzeko aldi baterako irekitzea ez da onartuko. Jarduera 12 hilabete baino gehiagoz etenez gero, etena obrarengatik edo lokalean egiten ari diren instalazioengatik ez bada behintzat zuzenean, lizentzia iraungita joko da.

36. ART.- IKUSKAPENAK

36.1 Udal zerbitzu teknikoen ikuskapenak.

- Udalak ofizioz edozein establezimendu ikuska dezake lizentziara eta indarrean dagoen araudira egokitzen dela ikusteko. Neurri zuzentzaileak ere agindu ditzake eta neurri horiek zehaztutako epean bete beharko dira.

- Ordenantza hauek onartu aurretik dauden establezimenduen kasuan, lokal bakoitzarentzako egokitzeko gehiengo epea ezarriko da betetze eta egokitze mailaren arabera, batez ere pertsonen segurtasunarekin eta osasungarritasunarekin loturiko alderdiei dagokienean (suteetatik babestu, babes akustikoa eta irisgarritasuna), epe hori igarotakoan lizentziak iraungi egingo dira. Alderdi sanitarioak eskumendun administrazioei dagozkien ikuskapenek arautuko eta kontrolatuko dituzte.

-

- Interesa duen edonork galde dezake udal zerbitzuetan ostalaritza zerbitzuen egoeraz, kokapenaz, egokitze mailaz eta egokitzeko epeaz.

36.2 Dauden lokalen egokitze maila eta egokitzeko epeak zehaztu.

- Udal zerbitzuek txosten bat egin dezakete udalerrian dauden ostalaritza establezimendu guztien egokitze mailarekin. Ondoko fitxa hau beteko dute horretarako eta egokitze maila alderdi horietako araudiaren arabera ebaluatuko da:

	Ez	Gutxi	Ongi
Suteetatik babestu			
Orokorrak			

- Lizentzia duten establezimendu guztiei egokitzeko epe bat emango zaie, kontroleko puntu garrantzitsu hauek kontuan izanda:

SUA Irteeretara distantziak – Larrialdien seinaleztapena – Hautemateko sistemak – Kontrol sistemak.

OROKORRAK Hornikuntza eta baldintza higieniko sanitarioak. Gasak kanporatzea Aireztatzea.

- Suteen aurkako babesa arautzen duten neurrietara egokitzeko urtebeteko epea izango da gehienez.

- Baldintza orokorretara egokitzeko 5 urteko epea izango da gehienez. Horiek igaro eta lokala egokitu gabe baldin badago, Udalak jarduera lizentzia ezeztatzeke tramitazioa hasiko du.

- Epe hori ezingo da izan, inondik ere, dagokion sektoreko legediak adierazitakoa baino handiagoa. Egin beharreko aldaketak maila handiagoko araudiaren ondorioz egin behar badira, araudi horretan ezarritako epeak hartuko dira kontuan.

- Ordenantza hauek onartutakoan hasiko da epea.

- Egokitzeko behar diren lizentziak epea amaitu baino gutxienez urtebete lehenago eskatu beharko dira.

- Aurrez aipaturiko epeak betetzen ez badira, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legeko 64. artikuluan edo ordezkoko araudian xedatutakoa ezarriko da.

VI. KAPITULUA

ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

37. ART.- ARAU-HAUSTEAK

37.1 Sektoreko legedian aurreikusitako arau-haustek.

Sektoreko legedian aurreikusitako arau-hauste erregimena honakoetan xedatutakoaren mende egongo da: Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren azaroaren 10eko 4/1995 Legean, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legean, abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuan, uztailaren 28ko 210/1998 Dekretuak zuzenduan, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk arautzen dituen EAEn edo horien ordezkoko geroagoko Legeetan xedatutakoaren mende.

37.2 Zaraterekin arau-haustea.

Zarataren arauak hautsiz gero, arina, larria edo oso larria izan daiteke arau-haustea.

1. Arau-hauste arinak dira:

- a) Bost (5) dbA baino gehiagoan gainditzen badu jarduera batek etxebizitzetan eta eraikuntza barruan entzuten den zarata; jarduera maila bakoitzean ezarrita egoten da gehieneko zarata.
- b) Lokaleko leihoak edo ateak irekita baldin badaude baimendutako ordutegitik kanpo.
- c) Musika ekipoa jendearentzako irekita egoteko ordutegitik kanpo baldin badago martxan.
- d) Ordenantza honetan aurreikusten den eta zaratarekin zerikusia duen beste edozer arau-hauste, larritzat edo oso larritzat jotzen ez dena.

2. Arau-hauste larriak dira:

- a) Urtebetean bi arau-hauste arin baino gehiago egitea.
- b) Zarata igortzearekin loturiko datuak kentzea, ezkutatzea edo iruzurtzea, baita jardueretako titularrei eskaturiko datuak ez ematea ere eta Administrazioaren ikuskapen lanak oztopatzea modu aktiboan edo pasiboan.
- c) Polizi agintariei edo udal teknikariei lokalean sartzen ez uztea, zaratarekin loturiko datuak egiaztatzeraz edo ikuskatzeraz datozenean.

3. Arau-hauste oso larriak dira:

- a) Urtebetean bi arau-hauste larri baino gehiago egitea.

37.3 Zigor prozedura mugatuko da Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean eta Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorreko prozedurazko alderdietan xedatutakora edo ondoren ordezkatzeko dituzten Legeetan xedatutakora.

37.4 Zigorrek ez dute zerikusirik izango eskumendun aginteak ezarritako zuhurtasuneko neurriekin eta ezarritako agindu juridiko hautsia berriro ezartzearekin.

37.5 Aurrekoak ez dio kalterik egingo jarrerak arau-hauste urbanistiko izateari edo arau-haustetzat tipifikatuta egoteari.

38. ART.- ZIGORRAK.

38.1 Zigor erregimena sektoreko legedian aurreikusitakora doituko da. Zaraten kasuan, sektoreko legediak xedatutako berariazko prebisorik ezean, arau-hausteak honela zigortuko dira:

Arau-hauste arinei 750 euro arteko isuna jar dakieke.

Arau-hauste larriek bi zigor hauetako bat edo biak izan ditzakete:

- a) 751 eurotik 1.500 eurora arteko isuna.
- b) Behin-behineko kendu lizentzia 6 hilabeterako, zigorra indarrean dagoen bitartean jarduera itxita edo etenda.

Arau-hauste oso larriek hiru zigor hauetako bat edo hiruak izan ditzakete:

- a) 1.501 eurotik 3.000 eurora arteko isuna
- b) Behin-behineko kendu lizentzia urtebeterako, zigorra indarrean dagoen bitartean jarduera itxita edo etenda.
- c) Behin betirako kendu lizentzia Udalak ezarritako neurri zuzentzaileak behin eta berriro, nabarmen eta argi eta garbi betetzen ez direnean.

39. ART.- BETEBEHAR OROKORRAK

Establezimenduek oro har honako betebeharrak izango dituzte:

Salneurri zerrenda izatekoa jendearen esku.

Elikagaiak manipulatzeko txartela duten langileekin aritzekoa.

Lokalaren ordutegia eta gaitasuna adierazten duen kartel bat izatekoa.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

BAT. Taldez aldatzeko lizentziak: Ezingo dira taldez aldatu Ordenantza hau indarrean sartzerako funtzionatzen ari diren lokalak gutxieneko distantzia betetzen ez badute, 1. taldean sartuta funtzionatzen ari diren establezimenduak izan ezik. Horiek bi urteko epea izango dute Ordenantza hau behin betirako onartutakoan 2. taldera aldatzea eskatzeko. Eta 2. taldean sartuta funtzionatzen ari diren establezimenduek, berriz, lau urte izango dituzte 3. taldean sartzea eskatzeko, Ordenantza hau behin betirako onartutakoan.

Taldez aldatzeko eskaria jarduera berrirako lizentziak bezala tramitatuko da eta emandako epea amaitu baino gutxienez urtebete lehenago eskatu beharko da.

BI. Hazteko lizentziak: Ordenantza hau indarrean sartzean funtzionatzen ari diren eta lizentzia duten establezimenduek gutxieneko distantzia bete ez arren hazteko baimena izango dute, honako baldintza hauek betetzen baldin badituzte:

Lizentzia berria eskatu establezimendu osoa araudi honetara egokituta.










5 metroko distantzia izan oinplanoko proiektzioan bere perimetroko edozein puntutatik inguruko beste ostalaritza lokalen batera, ordenantza hau onartu aurretiko lizentziarekin.

Jarduera bere osotasunean banandu gabe mantendu.

Hazteko gehieneko muga dagoen lokalaren azalera erabilgarriaren %50 izango da.

Hazte horiek ordenantza hau behin betirako onartu eta bost urteko epean baimenduko dira.

1. ERANSKINA NEURTZEKO IRIZPIDEAK.



2. ERANSKINA

Lizentzia eskatzeko fitxa: instalazio berriak, haztea, titularra edo taldea aldatu...

Amorebieta-Etxano udalerriko alkate-presidentziari:

ESKATZAILEA	
Izena	
Abizenak	
NAN	
Helbidea	
Telefonoa	
HONEN ORDEZ	
Izena	
Abizenak	
Enpresa	
IFK	
Helbidea	
Harremanetarako pertsona	
JARDUERA MOTA	
Berria (ireki)	
Berkalifikazioa	
Hazi	
Taldez aldatu	
Titularra aldatu	
ESTABLEZIMENDUAREN IZENA	
JARDUERA MOTA	
Taberna	
Taberna jatetxea	
Tabernarik gabeko jatetxea	
Kafetegia	
Puba	
Dastalekua	
Ardandegia	
Sagardotegia	
Erretegia	
Gastronomi elkarte	
Besterik (zehaztu)	
Kokagunea	
Lokalaren OHZ zk.	

Sinatzaileak, jaunak, lizentzia eskatzen du adierazitako jarduerarako, horretarako, Udal honen esku jartzen ditu honako agiriak:

Jardueraren proiektua aurkeztu du	
Obren proiektu teknikoa aurkeztu du	
Udal lizentzia aurkeztu du (Titularra aldatzeko kasuan)	

Amorebieta-Etxanon, 200(e)ko,(r)en,(e)an

3. ERANSKINA

Lizentzia eskarien kontrol fitxa.

Aurkeztu beharreko gutxieneko agiriak.

MEMORIA		
	Jardueraren ezaugarriak eta egin nahi den erabileraren deskripzio laburra.	
	Makinaria. Mota, ezaugarriak eta indarra.	
	Jardueran lanean arituko den pertsona kopurua.	
	Azalera osoak eta zatienak.	
	Dardaren kontrol-sistema.	
	Insonorizazio proiektuak. Kalkuluak eta justifikazioa.	
	Aurreikusitako aireztatze sistema eta kea eta gasa ateratzekoak.	
	Hondakinen barne kudeaketa.	
	Instalazio higieniko sanitarioak.	
Honakoak betetzen dituen justifikazioa:		
	CTE DB-SU. Erabiltzeko segurtasuna.	
	CTE DB-SI. Suteetako segurtasuna.	
	CTE DB-HE. Energia aurreztea.	
	Eraikinen baldintza akustikoak.	
	Irisgarritasun baldintzak.	
	Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren araudia.	
	Baldintza orokorrak	
PLANOAK		
	Kokapena	
	Egungo egoera	
	Distantzia betetzea gertuen dagoen ostalaritza establezimenduarekiko.	
	Husteko ibilbideetatik irteeretara arteko ibilbideak adierazten dituen oinplanoa.	
	Lokaleko atal akotatuak.	
	Lokaleko banaketa akotatuko plantak.	
	Aurrealdearen altxaerak koloreetan.	
	Hartutako neurrien eraikuntza zehazpenak.	
	Instalazio guztien banaketa planta zehaztua.	
BESTE AGIRIAK		

4. ERANSKINA

ALDI BATERAKO OSTALARITZA ESTABLEZIMENDUAK.

Kokatzeko dagokion udal baimena beharko dute.

Konexio elektrikoa beharko dute baimendutako instalatzaileak eginda, edateko uraren hornidura eta saneamenduko udal sarearekin lotura, aurrez udalak baimena emanda.

Behin bakarrik erabil daitezkeen baxera erabiliko dute.

Establezimendu hauetako eraikuntza materialak erraz garbitzeko modukoak izango dira, egitura prefabrikatuak homologatuta egongo dira dagokien justifikazio teknikoarekin eta erraz desmuntatzeko modukoak izango dira. Establezimendua osatzen duten materialak suaren aurkakoak izango dira.

Langileentzako garbitzeko tresnak egongo dira, xaboia eta behin bakarrik erabil daitezkeen eskuoihalak .

Kontserbatzeko makinaria edukiko dute, zerbitzatzen duten elikagaiekin bat datorrena.

Elikagaiak eta edariak Baimendutako Industrietakoak izango dira eta jatorrizko ontzietan egongo dira zerbitzatu arte.

Egunero garbituko dira eta garbitzeko produktuak, behar bezala etiketatuta, elikagaiekin batera ez dira gordeko. Ontzi hermetikoetan pilatutako hondarrak egunero hustuko dira.

Langileek janariak manipulatzeko txartela izango dute.

Behar diren su-itxalgailuak edukiko dira, bai kopuruari eta bai ezaugarriei dagokienean.

Salneurrien zerrenda jendearen esku egongo da.

5. ERANSKINA

OSTALARITZA ESTABLEZIMENDUETAKO SAILKAPENEI, ORDUTEGIEI ETA ZARATEN MUGEI BURUZKO LEGEDIA.

-JENDAURREKO IKUSKIZUNEN ETA JOLAS-JARDUEREN AZAROAREN 10EKO 4/1995 LEGEA .

- 296/1997 DEKRETUA, JENDAURREKO IKUSKIZUNEN ETA JOLAS-JARDUEREN ORDUTEGIAK ETA JARDUERA HORIEI BURUZKO BESTE ALDERDI BATZUK ARAUTZEN DITUENA EAEN (ABENDUAREN 19KO EHAA, 243. ZK.).

- 210/1998 DEKRETUA, UZTAILAREN 28KOA, EAEN JENDAURREKO IKUSKIZUNEN ETA JOLAS-JARDUEREN ORDUTEGIAK ETA JARDUERA HORIEI BURUZKO BESTE ALDERDI BATZUK ARAUTZEN DITUEN DEKRETUA ALDATZEN DUENA (ABUZTUAREN 3KO EHAA, 145. ZK.).

- 171/1985 DEKRETUA, EKAINAREN 11KOA, EKINTZAPIDE NEKAGARRIETAN, OSASUNKAITZETAN, KALTEKORRETAN ETA ARRISKUTSUETAN EZARTZEKO ARAU TEKNIKOAK ONARTU ZITUENA (EKAINAREN 29KO EHAA, 134. ZK.).

1. TALDEA. Adin txikikoentzat berariaz baimendutako lokalak eta instalazioak edo alkoholik gabeko edariak eta elikagaiak zerbitzatzeko baimena dutenak jatetxe jarduerarik gabe, hala nola:

Gaztetxoan dantzalekuak eta dantzatokiak, gaztetxoan diskotekak, dastalekuak, izozkitegiak, txokolategiak, txurrotegiak, kruasantegiak, te lekuak eta antzekoak.

Establezimendu horiek 22:30 h baino lehen itxi beharko dira.

Talde honetako establezimenduetako musika ekipoen potentzia eraginkorra ezingo da 50 watt baino handiagoa izan eta emisio bolumena 65 dB(A) baino handiagoa, dena delako tresnak izanda ere.

2. TALDEA. Alkoholdun edariak zerbitzatzeko eta jatetxe jarduera izateko baimena duten lokalak eta instalazioak, hala nola:

Tabernak, upategiak, taberna-kafetegiak, snackak, jatetxeak, erretegiak, autozerbitzuak, janari etxeak, txokoak, elkarte gastronomikoak, sagardotegiak eta antzekoak.

Establezimendu horiek 00:30 h baino lehen itxi beharko dira.

Talde honetako establezimenduetako musika ekipoen potentzia eraginkorra ezingo da 50 watt baino handiagoa izan eta emisio bolumena 75 dB(A) baino handiagoa.

3. TALDEA. Lokal edo establezimenduak jarduera berezizat dantzarako tokirik gabe musika izateko baimenarekin, hala nola:

Taberna bereziak, whiskitegiak, klubak, taberna amerikarrak, pubak, disko-tabernak, karaokeak eta antzekoak.

Establezimendu horiek 02:00 h baino lehen itxi beharko dira.

Talde honetako establezimenduetako musika ekipoen potentzia eraginkorra izan daiteke 50 watt baino handiagoa, baina emisio bolumena 90 dB(A) baino handiagoa ezingo da izan.

4. TALDEA. Lokal eta instalazioak dantzarako pista eta musika izateko edo ikuskizunak egiteko baimena dutenak, hala nola:

Dantzalekuak, dantzatokiak, kafe-antzokiak, ikuskizuna duten jatetxeak eta antzekoak.

Establezimendu horiek 04:00 h baino lehen itxi beharko dira.

Talde honetako establezimenduetako musika ekipoen potentzia eraginkorra izan daiteke 50 watt baino handiagoa, baina emisio bolumena 100 dB(A) baino handiagoa ezingo da izan.

Dekretu honetan aipatzen den lokalak eta instalazioak ixteko ordua eta beste ikuskizunak edo jarduerak amaitzekoa luzatu egingo da:

- a) Ordubete ostiral, larunbat eta jai bezperetan.
- b) Ordu erdi ekainaren 1etik irailaren 30era.
- c) Bi ordu, Dekretu honetako 12. artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe:

- Udalerriko bakoitzeko herriko jaietan. Horretarako, herriko jaitzat hartuko dira Udal bakoitzak bere udalerrian ofizialki ezarritakoak.

- Ostegunetik astelehenera Aste Santuan, ostegunetik asteartera inauterietan eta abenduaren 21etik urtarrilaren 6ra Gabonetan.

- Bestelako jarduerak daudenean (azokak, lehiaketak, erakusketak edo parekoak) eta Udalak edo Autonomia Erkidegoko eskumendun organoak interes turistikotzat jo baditu, egun jakinetan eta urtean hamar egunez gehienez.

Artikulu honetako aurreko atalek aipatzen dituzten ordutegiaren luzapenak metatu egingo dira.

Ixteko ordua iritsitakoan, lokalak eta instalazioak jendez hustu egin beharko dira, lokaleko langileak bakarrik geldituko dira bertan lokala egokitu eta txukuntzen.

Ikuskizun publikoak eta aisia jarduerak ezingo dira hasi goizeko 06:00 baino lehen.

Abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuko 2. artikuluan 3. eta 4. taldeetan sartutako lokal edo jardueren ixteko edo amaitzeko ordutik irekitzeko edo hasteko ordura gutxienez sei (6) ordu igaro beharko dira, baita ordua baino lehen itxi edo amaitu badira ere.

Kasu guztietan galarazita dago musika ekipoa edo tresnak erabiltzea goizeko 9:00 baino lehen.

Udal agintariari dagokio, Udal Zerbitzu Teknikoen txostenaren ondoren, establezimendu bat dagokion taldean sartzea, eskatzaileak aurkeztutako proiektuan dauden zehaztapenen arabera, edo egiten den edo legez tatu nahi den jardueran oinarrituta, hartzen duen izena dena delakoa izanda ere.

Amorebieta-Etxanon, 2006ko abenduaren 22an.

ALKATEA,

Sin.: David Latxaga Ugartemendia,